

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA UGALDETXXO

ZENBATGARREN SAIOA : 2

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-07	19:40	21:10

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Iñaki, Jexux, Enekoitz, Ioritz eta Eneritz

Kopurua: 13

16-30 urte: 0	Emakumeak: 5	Euskaraz: 13
30-50 urte: 3	Gizonezkoak: 8	Elebitan: 0
50-65 urte: 6		
>65 urte: 4		

AKTALARIA: Eneritz Arbelaiz

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	19:40-10:45 Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2017	19:45-19:58 2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	19:58-20:04 2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	20:04-20:08 2016ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2017rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira.
5	Mantenu lanak	20:08-21:05 lazko akta erreparasatu da. Iaz lehentasuna eman zen Matteo-Intxixuko bidegurutzeko arriskuari irtenbidea emateari. Aldundiarekin egindako saiakerak azaldu dira. Bisitak egin dira, emailaz ere behin eta berriro bidali diegu gogorarazteko gure lehentasunezko arazo bat dela hau. Horrez gain, 2017rako Juansendoko espaloia bukatzea egoki

		ikusten du Udalak. Espero dugu arazorik ez izatea hori egiteko. Egin ez diren lanak ere errepasatu dira. Adierazi da dauden behar guztiak (auzo guztietakoak) jaso eta puzzle lana egin behar dela. Herritarrek eskaerak egiten hasi dira: · Bidegurutzean semaforoak jartzeaz gain abiadura murrizteko zerbait egin beharko litzateke. · Mamutetik Erreterria aldera autobusez joan behar duenarentzat oinezkoentzat bidea lehen behintzat gaizki dago. Beste herritar batek adierazi du espaloia ongi jarri zutela. Erantzuna: Alcamporekin harremanetan jarri beharko dugu horrez gain atzeko baranda norena den argitzeke. · Futbol zelaiko aparkalekuan bailak daude ETBko kamioia sartzeko. Baina ezin da baranda itxi eta zabaldu egiten dena jarri? Autoak sartzeko eta irteteko sarrera ere zabaldu beharko litzateke, gainera kroska handia dago. Erantzuna: lanen zerrendan jarria daukagu eta 2017an egiten saiatuko gara. · Futbol zelaiko aparkalekuko sarreran kamioiak jarraitzen dute aparkatuta. Irteterakoan bisibilitate gutxi geratzen da. Proposamenak: piboteak jartzea sarreratik 5 m bitarte irteeratik gertu ez aparkatzeko. · Atamitxeko lokala: zer gertatuko da? Bertan etxeak egin behar dituzte laster. Erantzuna: hirigintzatik prozedura hasia dute hemengo promozioarena. Lehen proposamen bat aurkeztu zuten baina arkitektoak akats larriak ikusi zituen. Orain beste proiektu bat aurkeztu dute. Udalari 400m²-ko lokala utzi behar dio karga urbanistiko bezala. Batzordetik oraindik ez da pasa. Arkitektoa aztertzen ari da eta datorren urtean ziurrenik obrarekin hasiko dira. Auzotarren proposamena: Bidegorri ondoko txabola ondoan lokala egitea. Erantzuna: hor betelana dago eta hortik lurra atera eta erreka zabaldu behar da. Auzotarrak: elkarte gastronomikoak funtzionatzen dute auzo guztietan. Ugaldetxon ez dago ez elkarterik, ez frontoirik. Lokal bat behar du auzoak, eta eskatzen hasita, gastronomikoa egiteko aukera aztertzea eskatu dute. Obrak iraun bitartean ere gauzak gordetzeko lekua beharko dugu. Erantzuna: aztertuko dugu. Hala ere, auzoak elkarte bat behar duen edo guztientzat zabalik egongo den lokal bat behar duen ikusi beharko da. Elkarreak ere pribatuak dira orokorrean. Lokal bat ere ikusi beharko dugu bitartean erabiltzeko.
--	--	--

		Lokalaren neurriak eta zehaztasun bat duenean Udalak, bilera bat egitea proposatu da. Auzotarrek 250 m² nahi dituzte. · Katalintxotik harrobirako errepidea noiz egitea aurreikusten da? Erantzuna: Arau orokorretan bildua dago. Hala ere, Amenabarrek horretarako hor duen proiektua garatu behar du. Hori noiz egingo den ez dakigu. Proiektu hauek garatzea zaila da. Orain merkatua dagoen bezala proiektu txikiak soilik mugitu dira. · Industria aldetik ere auzoak asko sufritu du, karga handia jasan du. · Zubia falta da bidegorritik Kalexara. Erantzuna: berriro saiatu beharko dugu aukera horrekin. Lehentasuna lokala lortzeari ematen diote auzotarrek.
6	Balorazioa	21:05-21:10 Balorazio orriak bete dira.

Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	7,8
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8
Bileran erabili den metodologia	8
Herritarren asistentzia	4,8
Herritarren partehartzea	5,9
Saioa probetxugarria izan al da?	7,6
Egunaren egokitasuna	7,3
Orduaren egokitasuna	7
Lekuaren egokitasuna	7,2
Denera bataz beste	7,1

Komunikazio bideak	kop	%
--------------------	-----	---

2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



Kartela	0	0
Whatsapp	5	31
Irratia eta prentsa	0	0
Sare sozialak	5	31
Ahoz-ahoz	2	13
Udal aldizkaria	4	25